

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Energia elektrikoa, gasa, ura eta hidrokarburoak garraiatzeko instalazioengatiko tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu bereziagatiko tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren behin betiko onarpena

Ez da alegaziorik aurkeztu erreferentziako tasa ezartzeko espedientearekin lotuta, ez eta dagokion ordenantzaren hasierako onespenerarekin lotuta ere. Hori dela eta, ordenantza argitaratu da, indarrean sar dadin.

Duranean, 2022ko abenduaren 26an

Alkatea

MARIA BLANCA ANTÉPARA URIBE

I Eraskina. Ordenantza

Arratzua-Ubarrundiako udalerrian energia elektrikoa, gasa, ura eta hidrokarburoak garraiatzeko instalazioengatik tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu bereziagatik tasa arautzen duen ordenantza fiskala.

Atarikoa

Espainiako Konstituzioaren 133.2 eta 142. artikuluek eta Arabako Toki Ogasunen Foru Arauaren testuategina onartzen duen irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemaileak emandako araugintza-ahalmenen arabera, eta arau-testu beraren 23.1 A) artikulua eta hurrengoek, eta, bereziki, arau-testu beraren 27.1 artikulua emandako ahalmenen arabera, ordenantza fiskal honen bidez energia elektrikoa, gasa, ura eta hidrokarburoak garraiatzeko instalazioek tokiko jabari publikoa erabiltzeagatik edo bereziki aprobetxatzeagatik ordaindu beharreko tasa ezarri eta arautzen da, ordenantza honetan jasotako eta nahitaezko txosten tekniko ekonomiko baten ondoriozko erregimenaren eta tarifen arabera. Txosten hori kalkulatzeko metodoa eta bertan aurreikusitako parametroak zuzenbidearen araberakoak direla adierazi du Auzitegi Gorenak, eta horretarako honako epaiak aipatzen dira: 2708/2016 [Kasazio-errekurtsoa 1117/2016]; 2726/2016 [Kasazio-errekurtsoa 436/2016]; 49/2017 [Kasazio-errekurtsoa 1473/2016], 489/2017 [Kasazio-errekurtsoa 1238/2016], 292/2019 [Kasazio-errekurtsoa 1086/2017], 308/19 [Kasazio-errekurtsoa 1193/2017], 1649/2020 [Kasazio-errekurtsoa 3508/2019], 1659/2020 [Kasazio-errekurtsoa 3099/2019], 1783/2020 [Kasazio-errekurtsoa 3939/2019] eta 275/2021 [Kasazio-errekurtsoa 1986/2019], besteak beste, ordenantza-eredu hori baliozkotzen dutenak eta edukia eta betebeharrak finkatzen dituztenak.

1. Artikulua. Ezarpen-eremua.

Ordenantza honek arautzen duen tasa ordaintzera behartuta daude Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 35. artikuluan aipatzen diren pertsona fisiko edo juridiko, sozietate zibil, ondasun-erkidego eta gainerako erakunde guztiak, baldin eta tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu berezia erabiltzen badute edo aprobetxamendu horren edozein eratako onurak jasotzen badituzte, aprobetxamendu horren zehaztapen eta konkretzioekin.

Ordenantza honen aplikazioa tokiko jabari publikoa erabiltzeagatik edo aprobetxamendu bereziagatik Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testuategina onartzen duen irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 27.1.a) artikuluan ezarritako ordaindu beharreko tasarekin bat datorren araubide orokorrari dagokio, non ez den gertatzen interes orokorreko zerbitzuen enpresa hornitzaile izateko inguruabarrik, baldin eta enpresa horiek auzotar guztiei edo zati handi bati eragiten badiete eta udal bide publikoen lurzorua, zorupea edo hegalkina okupatzen badute, 27.1.c) artikulurako aurreikusitako inguruabarrek dioten bezala.

2. Artikulua. Zerga-egitatea.

Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testuategina onartzen duen irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 23. artikulua arabera, tasaren zergapeko egitatea da tokiko jabari publikoaren erabilera edo aprobetxamendu berezia, bere lurzoruan, lurpean eta hegalean, honako hauekin:

- a) Energia garraiatzeko instalazioak, beren ezinbesteko elementu guztiekin, adierazpen-ondorio hutsetarako honela definitzen direnak: amarratze-kutxak, metalezko dorreak, transformadoreak, energia elektrikoa, gasa, ura edo beste energia-hornidura batzuk garraiatzeko edo banatzeko instalazioak edo lineak, ponpaketa-instalazioak eta energiarekin zerikusia duten gainerako antzeko elementuak, baldin eta paragrafo honetan jaso ez diren tokiko jabari publikoaren aprobetxamenduak edo erabilerak badira.
- b) Gasa, ura, hidrokarburoak eta antzekoak garraiatzeko instalazioak.

Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu berezia egingo da baldin eta jabari publikoa, oro har, hartzen duten instalazio horiek erabili behar badira.

Ordenantza honen ondorioetarako, tokiko jabari publikotzat joko dira udal honen titulartasuneko udal-mugartean dauden erabilera, jabari publiko edo zerbitzu publikoko ondasun guztiak, bai eta herri-ondasunak edo bertako auzotarren ondasun erkidearenak ere, ondare-ondasun deiturikoak izan ezik.

3. Artikulua. Subjektu pasiboak.

Honako hauek dira tasen subjektu pasiboak, zergadun gisa: tokiko jabari publikoa baliatu, erabili edo aprobetxatzen duten pertsona fisiko eta juridikoak eta Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 35.3 artikuluan aipatzen diren erakundeak.

Nagusiki, uraren, gasaren, elektrizitatearen eta hidrokarburoen sektoreetako enpresen edo ustiatzaileen izaera duten pertsona fisiko eta juridikoak eta Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 35.3 artikuluan aipatzen diren erakundeak izango dira tasa honen subjektu pasiboak, betiere tokiko jabari publikoa onura partikularerako baliatzen, erabiltzen edo aprobetxatzen badute bereziki, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testuategina onartzen duen irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 23. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasuren baten arabera, hala nola energia elektrikoa hidrokarburoak (gasbideak, oliobideak eta antzekoak) eta ura ekoizten, garraiatzen, banatzen, hornitzen eta merkaturatzen duten enpresak, eta udal honen udal-mugartean edo beste edozein lekutan zerbitzua emateko beharrezkoak diren elementu erantsiak ere bai, udal honen udal-jabari publikoa erabiltzen edo aprobetxatzen dutenak, eta bertako instalazioek tokiko jabari publikoari eragiten diotenak.

4. Artikulua. Zerga-oinarriak, motak eta kuotak.

Ordenantza honetan araututako tasen zenbatekoa honakoa da:

Zerga kuota eranskinean agertzen diren tarifetan jasotakoa da, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onartzen duen irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 27.1.a) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, tokiko jabari publikoa erabiltzeagatik edo aprobetxamendu bereziagatik.

Erabilera horregatik edo tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu bereziagatik aurreikusitako tasen zenbatekoa zehazteko, erabilera edo aprobetxamendu horretatik eratorritako erabilerak merkatuan izango lukeen balioa hartuko da erreferentziazat, eragindako ondasunak jabari publikokoak ez balira bezala, merkatuaren balioa agerian jartzen duen txosten tekniko-ekonomiko baten arabera. Txosten hori dagokion erabakia hartzeko espedienteari erantsi zaio, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onartzen duen irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 28. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Horretarako, eta Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onartzen duen irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 27. artikuluan 1. a) idatz-zatiarekin bat etorritz, erabilera edo aprobetxamendu bereziaren izaera espezifiko kontuan hartuta, honako elementu hauentzako zerga-kuota izango da: dorreak, euskarriak, zutoinak, hodiak, lineak, eroaleak, errepikagailuak eta abar, erabilera, jabari edo zerbitzu publikoko ondasunak eta herri-ondasunak finkatzen eta zeharkatzen dituztenak, eta, ondorioz, subjektu pasiboek ukitutako lurren jabetza ez dutenez, horien aprobetxamendu komuna edo publikoa murrizten dutenak eta horien gainean beren enpresa-jarduerarako erabilera edo aprobetxamendu berezia lortzen dutenak.

Tributu-kuota kalkulatzeko, lehenik eta behin, okupazioaren, lurzorua eta instalazioen balio osoak ematen duen zerga-oinarria kalkulatu da, azterketak islatzen duen instalazio-motaren, xedearen eta motaren arabera. Azterketan bertan jasotzen den zerga-tasa aplikatuko zaio, erabilera eta jabari publikoko ondasunen lagapenari buruzko arauen aginduak kontuan hartuta. Beraz, kuota ez da instalazioen eta okupazioen balio zuzen batetik ateratzen, hori baita zerga-oinarria, baizik eta zerga-tasa aplikatzearen emaitzatik.

Horretarako, eta Auzitegi Gorenak epaietan ezarritako eskakizunarekin bat etorritz, ordenantza hau arrazoitzen duten 2020ko abenduaren 3ko epaian, bi zerga-tasa ezartzen dira, azterlanaren justifikazioa kontuan hartuta, tokiko jabari publikoaren erabileraren intentsitatea kontuan hartuta:

- a) %5 instalazioen aprobetxamendu berezietan, hala nola amarratzekaxetan, metalezko dorreetan, euskarrietan, transformadoreetan, gordailuetan edo antzeko beste elementu batzuetan.
- b) %2,5 gainerako elementuen aprobetxamenduan, hala nola, aireko lineak, edo energia garraiatzeko kableetan.

Ondorioz, tasaren zerga kuota ordenantza honetako txosten tekniko-ekonomikoari dagokion Tarifen Eranskinean jasota dago. Bertan, erabilitako metodologiarekin kasu bakoitzean zerga kuota lortu eta jaso da.

5. Artikulua.

Artículo 5º.- Zergaldia eta sortzapena.

1. Zergaldia bat dator urte naturalarekin, tokiko jabari publikoaren erabilera edo aprobetxamendu berezia hasi edo eteten denean izan ezik; kasu horietan, hiruhileko hainbanaketa aplikatuko da, arau hauen arabera:

- a) Aprobetxamendu berezia hasteagatik alden kasuan, ekitaldia amaitzeko geratzen diren hiruhilekoei dagokien kuota likidatuko da, alta ematen den hiruhilekoa barne.
- b) Aprobetxamendu berezia uztearen ondoriozko bajen kasuan, ekitaldiaren hasieratik igarotako hiruhilekoei dagokien kuota likidatuko da, uztearen arrazoia barne.
- c) Ordenantza onartu aurretik erabiltzen edo aprobetxamendu berezia egiten ari diren instalazioei, ordenantza behin betiko onartu eta hurrengo urteko urtarrilaren batean eskatuko zaie tasa aldiari-aldian ordaintzeko.

2. Ordenantza honetan araututako tasa ordaintzeko betebeharra une hauetan sortzen da:

- a) Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu edo erabilera berrien emakidak edo baimenak direnean, dagokion lizentzia eskatzeko unean.
- b) Ordenantza honetako lehen artikuluan aipatzen den aprobetxamendu bereziaz gozatzeko edo tokiko jabari publikoa erabiltzeko lizentzia edo baimenik behar ez denean, aipatutako tokiko jabari publikoaren aprobetxamendua edo erabilera hasi den unetik.

3. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu bereziak hainbat ekitalditan luzatzen direnean, tasa urte bakoitzeko urtarrilaren batean sortuko da, eta zergaldiak urte naturala hartuko du.

1.- Subjektu pasiboari kuotak jakinaraziz eskatuko da tasa, autolikidaziorik ez dagoenean edo subjektu pasiboak aitortzen aurkezten ez duenean, elementuei eta zerga-kuotak aurkitzeko gainerakoei dagokienez. Horretarako, azpiegituren inbentarioa egingo da, azpiegitura, luzera eta mota guztiak zehaztuz.

2.- Tarifen arabera eska daitezkeen zenbatekoak eskatutako edo egindako aprobetxamendu bakoitzeko likidatuko dira, eta erabilera bakoitzeko, honela:

a) Aprobetxamendu berrien emakiden kasuan, aprobetxamendu bereziaz gozatzeko baimen-eskaerarekin batera, tasaren autolikidazio-inprimakia aurkeztu beharko da behar bezala beteta, edo, bestela, artikuluko honetako 2. paragrafoa aplikatuko da, hurrengo paragrafoarekin lotuta.

Bestela, Idazkaritzan aurkez daitezke deklarazioaren elementuak, langile eskudunek zorra zehazteko behar duten laguntza eman dezaten. Kasu horretan, interesdunari abonua-agiria emango zaio, une horretan edo dagokion epean ordaindu ahal izan dezan kuota, abonua-agirian bertan adierazitako ordainketa-lekuetan.

b) Lehendik dauden edo baimenduta dauden aprobetxamenduen edo erabileren kasuan, tasa urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan ordainduko da. Ordainketa errazteko, edo subjektu pasiboak daturik ematen ez badu, udal honek dagokion likidazioa egingo du, eta ordainketa banku-erakunde laguntzailean edo udal-kutxan egin ahal izateko egokia den likidazio-agiri bat igorri ahal izango du subjektu pasiboaren helbidera.

Hala ere, aipatutako ordainketa-agiria jaso ez izanak ez du baliogabetzen udalak zehaztutako epean tasa ordaintzeko betebeharra.

3.- Subjektu pasiboak tasaren ordainketa helbideratzea eskatu ahal izango du. Kasu horretan, banku kontuko zordunketa aginduko da borondatezko ordainketaren azken hamabostaldian, *eta kasu horietan tasa horren zerga kuotaren % 5eko hobaria ezarriko da*, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onartzen duen irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 9.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

6. Artikulua. Tasen jakinarazpenak.

1.- Ordenantza honetan aipatzen diren aprobetxamendu edo erabileretarako zerga-zorren jakinarazpena interesatuari egingo zaio, autolikidazioa aurkezten denean edo likidazioa egiten denean, baldin eta likidazioa aurkezten ez bada. Aurreko zenbakian aurreikusitakoa gorabehera, autolikidazioa egiaztatu ondoren okerra bada, likidazio osagarria egingo da.

2.- Aprobetxamendu bereziengatik edo erabilera jarraituagatik ordaindu beharreko tasen kasuan, ordenantza honen xedea aldizkakoa bada, likidazio bidez jakinaraziko da zuzenean, eta une horretatik aurrera zergadunen erregistroan alta ematea ulertuko da. Ondo ondoko ekitaldien tasa pertsonalki jakinarazi ahal izango zaio subjektu pasiboari, edo kolektiboki, iragarki-taulan errolda jendaurrean jarrita, azken kasu horretan ALHAOn iragarriko den aldirako.

3.- Ordenantza honetan araututako aprobetxamenduak emateko edo erabiltzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridikoek eta gainerako erakundeek, edo administrazio-emakiden edo bestelako legezko baimenen titularrek, baldin eta ez badute aginduzko udal-lizentziarik, lizentzia eskatu beharko dute eta aplikatzekoak diren legezko izapideak bete beharko dituzte, eta hori ez egiteak ez die tasa ordaintzetik salbuetsiko.

4.- Ordenantza honetan aipatzen diren ondasunak okupatzeko baimena eman ondoren, edo ordenantza hori ezarri ondoren, aprobetxamenduak edo erabilerak dakarren baimenaren iraupena zehaztasunez zehaztu ez bazen, luzatutzat joko da ordenantza honen ondorioetarako, subjektu pasiboek baja-adierazpena aurkeztu arte.

5.- Baja aurkezteak tarifen epigrafeetan adierazitako hurrengo epealdi naturalaren lehenengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.- Baja aurkezten ez bada, tasa ordaintzen jarraitu beharko da.

7. Artikulua. Arau-hausteak eta zigorrak.

Arau-hauste eta zehapenen araubideari dagokion guztian, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

Azken xedapena.

Ordenantza hau, egungo edukiari dagokionez, ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da. Indarrean jarraituko du hurrengo ekitaldietan, berariaz aldatu edo indargabetu arte.

1. ERANSKINA.

1. ZERGA-OINARRIAREN KALKULU-TAULAK

1. MULTZOA. ARGINDARRA. AIREKO LINEAK								
INSTALAZIOA		BAIU UNITARIOA			Zerga-oinarria RM=0.5 (A+B)xRM	LURSAIL MOTAREN ARA BERAKO BALIOKIDETZA (m ² /ml) (C)	ERDALEEN HEGALEN ZERGA-OINARRIA (Euro/ml) (A+B)x0.5x(C)	EUSKARRIEN ZERGA- OINARRIA (Euro/m ²) (A+B)x0.5
		LURZORUA (Euro/m ²) (A)	ERAIKINA (Euro/m ²) (B)	HIGIEZINA (Euro/m ²) (A+B)				
MAILA BEREZIA								
A1 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa U _z ≥ 400 Kv. Zirkuitu bikoitza edo gehiago	0,312	27,574	27,886	13,943	17,704	246,847 euro/ml	13,943 euro/m ²
A2 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa U _z ≥ 400 Kv. Oinarrizko zirkuitua	0,312	16,856	17,168	8,584	17,704	151,971 euro/ml	8,584 euro/m ²
A3 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 220 Kv<U _c < 400 Kv. Zirkuitu bikoitza edo gehiago	0,312	39,015	39,327	19,664	11,179	219,818 euro/ml	19,664 euro/m ²
A4 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 220 Kv<U _c < 400 Kv. Oinarrizko zirkuitua	0,312	23,850	24,162	12,081	11,179	135,053 euro/ml	12,081 euro/m ²
LEHENENGO MAILA								
B1 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 110 Kv<U _c < 220 Kv . Zirkuitu bikoitza edo gehiago	0,312	26,333	26,645	13,323	6,779	90,313 euro/ml	13,323 euro/m ²
B2 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 110 Kv<U _c <220 Kv . Oinarrizko zirkuitua	0,312	20,137	20,449	10,225	6,779	69,312 euro/ml	10,225 euro/m ²
B3 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 66 Kv<U _c ≤ 110 Kv	0,312	20,325	20,637	10,319	5,650	58,300 euro/ml	10,319 euro/m ²
BIGARREN MAILA								
C1 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 45 Kv<U _c ≤ 66 Kv. Zirkuitu bikoitza edo gehiago	0,312	50,926	51,238	25,619	2,376	60,871 euro/ml	25,619 euro/m ²
C2 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 45 Kv<U _c ≤ 66 Kv. Oinarrizko zirkuitua	0,312	29,461	29,773	14,887	2,376	35,370 euro/ml	14,887 euro/m ²
C3 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 30 Kv<U _c ≤ 45 Kv.	0,312	28,323	28,635	14,318	2,376	34,018 euro/ml	14,318 euro/m ²
HIRUGARREN MAILA								
D1 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 20 Kv<U _c ≤ 30 Kv	0,312	29,176	29,488	14,744	1,739	25,640 euro/ml	14,744 euro/m ²
D2 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 15 Kv<U _c ≤ 20 Kv	0,312	20,553	20,865	10,433	1,739	18,142 euro/ml	10,433 euro/m ²
D3 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 10Kv<U _c ≤ 15 Kv	0,312	19,691	20,003	10,002	1,534	15,342 euro/ml	10,002 euro/m ²
D4 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 1Kv<U _c ≤ 10 Kv.	0,312	14,534	14,846	7,423	1,517	11,261 euro/ml	7,423 euro/m ²

U Tentsio nominala

220Kv<itik beherako tentsio nominala duten garraio-sareko lineak, zerga-helburuetarako, dagokien tentsioaren kategorian sartuko dira.

I MULTZOA.II ARGINDARRA. LURPEKO LINEAK.

INSTALAZIOA	BALIO UNITARIOA			RM 0,5 (A+B)×0,5	LURSAIL MOTAREN ARABERAKO BALUOKIDETZA (m ² /ml) (C)	ZERGA-ONARRIA (euro/ml) (A+B)×0,5×(C)	
	LURZORUA (euro/m ²) (A)	ERAIKINA (euro/m ²) (B)	HIGEZINA (euro/m ²) (A+B)				
MAILA BEREZIA							
A1 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa U ₂ 400 Kv.	0,312	1185,928	1186,240	593,120	0,600	355,872
A2 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa 220 Kv≤U< 400 Kv.	0,312	1111,808	1112,120	556,060	0,600	333,636
LEHENENGO MAILA							
B1 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa 110 Kv<U<220 Kv.	0,312	1063,406	1063,718	531,859	0,500	265,930
B2 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa 66 Kv<U≤ 110 Kv	0,312	726,086	726,398	363,199	0,500	181,600
BIGARREN MAILA							
C1 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa 45 Kv<U≤ 66 Kv.	0,312	339,860	340,172	170,086	0,400	68,034
C2 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa 30 Kv<U≤ 45 Kv.	0,312	295,530	295,842	147,921	0,400	59,168
HIRUGARREN MAILA							
D1 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa 20 Kv<U≤ 30 Kv	0,312	265,978	266,290	133,145	0,400	53,258
D2 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa 15 Kv<U≤ 20 Kv	0,312	236,425	236,737	118,369	0,400	47,347
D3 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa 10Kv<U≤ 15 Kv	0,312	141,855	142,167	71,084	0,400	28,433
D4 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa 1Kv<U≤ 10 Kv.	0,312	118,213	118,525	59,263	0,400	23,705

U Tentsio nominala

220Kvtik beherako tentsio nominala duten garraio-sareko lineak, zerga-helburuetarako, dagokien tentsioaren kategorian sartuko dira.

II MULTZOA. GASA ETA HIDROKARBUROAK		BALIO UNITARIOA			RM	LURZORU MOTAREN ARABERAKO BALIOKIDETZA (C)	ZERGA-DINARRIA (euro/neurri-unitateko) (A+B)x0.5x(C)
INSTALAZIOA		LURZORUA (euro/m ²) (A)	ERAKINA (euro/m ²) (B)	HIGIEZINA (euro/m ²) (A+B)	0.5 (A+B)x0.5	(m ² /ml)	(euro/ml)
A MOTA	Gas edo hidrokarburuen kanalizazioaren metro bat, 4 hazbetera arteko diametroa.	0,312	16,387	16,699	8,350	3,000	25,049
						(m ² /ml)	(euro/ml)
B MOTA	Gas edo hidrokarburuen kanalizazioaren metro bat, 4 hazbetetik gorako eta 10 hazbetera arteko diametrokoa.	0,312	28,677	28,989	14,495	6,000	86,967
						(m ² /ml)	(euro/ml)
C MOTA	Gas edo hidrokarburuen kanalizazioaren metro bat, 10 hazbetetik gorako eta 20 hazbetera arteko diametrokoa.	0,312	46,088	46,400	23,200	8,000	185,600
						(m ² /ml)	(euro/ml)
D MOTA	Gas edo hidrokarburuen kanalizazioaren metro bat, 20 hazbetetik gorako diametrokoa.	0,312	49,160	49,472	24,736	10,000	247,360
						(m ² /ml)	(euro/ml)
E MOTA	Bultzada-instalazio bat edo gas edo hidrokarburuen depositu edo andela bat, 10 m ³ -ra artekoa.	0,312	63,500	63,812	31,906	100,000	3.190,600
						(m ² /Ud)	(euro/Ud)
F MOTA	Bultzada-instalazio bat edo gas edo hidrokarburuen depositu edo andela bat, 10 m ³ -koa edo goragokoa.	0,312	63,500	63,812	31,906	500,000	15.953,000
						(m ² /Ud)	(euro/Ud)

III MULTZOA. URA		BALIO UNITARIOA			RM	LURZORU MOTAREN ARABERAKO BALIOKIDETZA (m ² /ml) (C)	ZERGA-DINARRIA (euro/ml) (A+B)x0.5x(C)
INSTALAZIOA		LURZORUA (euro/m ²) (A)	ERAKINA (euro/m ²) (B)	HIGIEZINA (euro/m ²) (A+B)	0.5 (A+B)x0.5	(m ² /ml)	(euro/ml)
A MOTA	Metro bat hodi, 10 cm arteko diametrokoa.	0,312	10,366	10,678	5,339	3,000	16,017
B MOTA	Metro bat hodi, 10 cm-tik gorako eta 25 cm-ra arteko diametroduna.	0,312	13,292	13,604	6,802	3,000	20,406
C MOTA	Metro bat hodi, 25 cm-tik gorako eta 50 cm-ra arteko diametroduna.	0,312	18,975	19,287	9,644	3,000	28,931
D MOTA	Metro bat hodi, 50 cm-tik gorako diametroduna.	0,312	22,869	23,181	11,591	3,000	34,772
E MOTA	Kanaleko metro lineal bat	0,312	26,532	26,844	13,422	D	13,422xD

D Kanalaren barne-perimetroa (m)

2. TARIFEN KALKULU-TAULAK

1. MULTZOA: ARGINDARRA, AIREKO LINEAK

INSTALAZIOA		ERDALEEN HEGALEIN ZERGA-DINARRIA (Euro/m) (A+B)xCx(C)	ERDALEEN ZERGA-DINARRIA (Euro/m ²) (A+B)x0,5	ERDALENTZAKO HEGALDI-EREMJAREN TARIFA HEGALEIN ZERGA-DINARRIA x ZERGA-MOTA (2,5%) (Euro/m ²)	LAGUNTZA-EREMJAREN TARIFA LAGUNTZAREN ZERGA-DINARRIA x ZERGA-MOTA (5%) (Euro/m ²)	LAGUNTZA-EREMJAREN TARIFA (ERDALEEN HEGALEIN) LAGUNTZAREN ZERGA-DINARRIA x ZERGA-MOTA (2,5%) (Euro/m ²)
MAILA BEREZIA						
A1 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa Uz 400 Kv. Zirkuitu bikoitza edo gehiago	246,847	13,943	6,171	0,697	0,349
		euro/ml	euro/m ²	euro/ml	euro/m ²	euro/m ²
A2 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa Uz 400 Kv. Oinarrizko zirkuitua	151,971	8,584	3,799	0,429	0,215
		euro/ml	euro/m ²	euro/ml	euro/m ²	euro/m ²
A3 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 220 Kv<U< 400 Kv. Zirkuitu bikoitza edo gehiago	219,818	19,664	5,495	0,983	0,492
		euro/ml	euro/m ²	euro/ml	euro/m ²	euro/m ²
A4 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 220 Kv<U< 400 Kv. Oinarrizko zirkuitua	135,053	12,081	3,376	0,604	0,302
		euro/ml	euro/m ²	euro/ml	euro/m ²	euro/m ²
LEHENENGO MAILA						
B1 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 110 Kv<U< 220 Kv . Zirkuitu bikoitza edo gehiago	90,313	13,323	2,258	0,666	0,333
		euro/ml	euro/m ²	euro/ml	euro/m ²	euro/m ²
B2 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 110 Kv<U<220 Kv. Oinarrizko zirkuitua	69,312	10,225	1,733	0,511	0,256
		euro/ml	euro/m ²	euro/ml	euro/m ²	euro/m ²
B3 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 66 Kv<U< 110 Kv	58,300	10,319	1,458	0,516	0,258
		euro/ml	euro/m ²	euro/ml	euro/m ²	euro/m ²
BIGARREN MAILA						
C1 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 45 Kv<U< 66 Kv. Zirkuitu bikoitza edo gehiago	60,871	25,619	1,522	1,281	0,640
		euro/ml	euro/m ²	euro/ml	euro/m ²	euro/m ²
C2 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 45 Kv<U< 66 Kv. Oinarrizko zirkuitua	35,370	14,887	0,884	0,744	0,372
		euro/ml	euro/m ²	euro/ml	euro/m ²	euro/m ²
C3 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 30 Kv<U< 45 Kv.	34,018	14,318	0,850	0,716	0,358
		euro/ml	euro/m ²	euro/ml	euro/m ²	euro/m ²
HIRUGARREN MAILA						
D1 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 20 Kv<U< 30 Kv	25,640	14,744	0,641	0,737	0,369
		euro/ml	euro/m ²	euro/ml	euro/m ²	euro/m ²
D2 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 15 Kv<U< 20 Kv	18,142	10,433	0,454	0,522	0,261
		euro/ml	euro/m ²	euro/ml	euro/m ²	euro/m ²
D3 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 10Kv<U< 15 Kv	15,342	10,002	0,384	0,500	0,250
		euro/ml	euro/m ²	euro/ml	euro/m ²	euro/m ²
D4 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 1Kv<U< 10 Kv.	11,261	7,423	0,282	0,371	0,186
		euro/ml	euro/m ²	euro/ml	euro/m ²	euro/m ²

U Tentsio nominala

220Kvtik beherako tentsio nominala duten garraio-sareko lineak, zerga-helburuetarako, dagokien tentsioaren kategorian sartuko dira.

I MULTZOA.II ARGINDARRA. LURPEKO LINEAK.

INSTALAZIOA		ZERGA-OINARRIA (euro/ml) (A+B)x0.5x(C)	ZERGA-OINARRIAREN TARIFA x ZERGA- MOTA(5%) (euro/ml)
MAILA BEREZIA			
A1 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa $U \geq 400$ Kv.	355,872	17,794
A2 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa $220 \text{ Kv} \leq U < 400$ Kv.	333,636	16,682
LEHENENGO MAILA			
B1 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa $110 \text{ Kv} < U < 220$ Kv.	265,930	13,297
B2 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa $66 \text{ Kv} < U \leq 110$ Kv.	181,600	9,080
BIGAREN MAILA			
C1 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa $45 \text{ Kv} < U \leq 66$ Kv.	68,034	3,402
C2 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa $30 \text{ Kv} < U \leq 45$ Kv.	59,168	2,958
HIRUGAREN MAILA			
D1 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa $20 \text{ Kv} < U \leq 30$ Kv.	53,258	2,663
D2 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa $15 \text{ Kv} < U \leq 20$ Kv.	47,347	2,367
D3 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa $10 \text{ Kv} < U \leq 15$ Kv.	28,433	1,422
D4 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa $1 \text{ Kv} < U \leq 10$ Kv.	23,705	1,185

U Tentsio nominala

220Kvtik beherako tentsio nominala duten garraio-sareko lineak, zerga-helburuetarako, dagokien tentsioaren kategorian sartuko dira.

II MULTZOA. GASA ETA HIDROKARBUROAK

INSTALAZIOA		ZERGA-OINARRIA (euro/neurri- unitatea) (A+B)x0.5x(C)	ZERGA-OINARRIAREN TARIFAX ZERGA-MOTA (5%) (euro/neurri- unitatea)
A MOTA	Gas edo hidrokarburoen kanalizazioaren metro bat, 4 hazbetera arteko diametroa.	25,049 (euro/ml)	1,252 (euro/ml)
B MOTA	Gas edo hidrokarburoen kanalizazioaren metro bat, 4 hazbetetik gorako eta 10 hazbetera arteko diametrokoa.	86,967 (euro/ml)	4,348 (euro/ml)
C MOTA	Gas edo hidrokarburoen kanalizazioaren metro bat, 10 hazbetetik gorako eta 20 hazbetera arteko diametrokoa.	185,600 (euro/ml)	9,280 (euro/ml)
D MOTA	Gas edo hidrokarburoen kanalizazioaren metro bat, 20 hazbetetik gorako diametrokoa.	247,360 (euro/ml)	12,368 (euro/ml)
E MOTA	Bultzada-instalazio bat edo gas edo hidrokarburoen depositu edo andela bat, 10 m ³ -ra artekoa.	3.190,600 (euro/Ud)	159,530 (euro/Ud)
F MOTA	Bultzada-instalazio bat edo gas edo hidrokarburoen depositu edo andela bat, 10 m ³ -koa edo goragokoa.	15.953,000 (euro/Ud)	797,650 (euro/Ud)

III MULTZOA. URA

INSTALAZIOA		ZERGA-OINARRIA (euro/ml) (A+B)x0.5x(C)	ZERGA-OINARRIAREN TARIFA / ZERGA-MOTA (5%) (euro/ml)
A MOTA	Metro bat hodi, 10 cm arteko diametrokoa.	16,017	0,801
B MOTA	Metro bat hodi, 10 cm-tik gorako eta 25 cm-ra arteko diametroduna.	20,406	1,020
C MOTA	Metro bat hodi, 25 cm-tik gorako eta 50 cm-ra arteko diametroduna.	28,931	1,447
D MOTA	Metro bat hodi, 50 cm-tik gorako diametroduna.	34,772	1,739
E MOTA	Kanaleko metro lineal bat	13,422xD	0,671xD

D Kanalaren barne-perimetroa (m)